

EPE 2011

Bigarren Hezkuntzako irakasleentzat oharra

EPera aurkezten diren Bigarren Hezkuntzako irakasleak maiatzaren 3ko 2/2006 Hezkuntzari buruzko Lege Organikoko 100.2 artikuluan aipatzen den **prestakuntza pedagogiko eta didaktikoa edukitzea beharrezkoa** izango dute lan-postua eskuratu ahal izateko. Hori egiaztatzen dute ondorengo agiriei:

- 1- Irakasle gisa jarduteko gai egiten duen Masterraren titulu ofizialak.
- 2- Espezializazio Didaktikoaren eta Trebakuntza Pedagogiko ziurtagiriaren titulu profesionalak eta Irakasteko Gaitasunaren Ziurtagiriak.
- 3- 2008-09 ikasturteak bukatu aurretik bi ikasturte osotan, edo 12 hilabete jarraian edo etenekin, ikastetxe publikoetan edo behar den baimena duten irakaskuntza arautuko ikastetxe pribatuetan aritu izana egiaztatzen dutenek.

Salbuetsita daude, Maisu/Maistra edo Oinarrizko Hezkuntza Orokorreko irakasle tituludunak, Pedagogian eta Psikopedagogian lizentziatuak eta lizentziatura edo prestakuntza pedagogikoa eta didaktikoa kontutan dituzten lizentziaturan titulazioa dutenak.

Programazio didaktikoa, unitate didaktikoa eta merituen entregatzea

2011eko otsailaren 14etik 28ra artean, izangaiek entregatu beharko dute:

1. **dokumentazioa** (jatorrizkoa edo fotokopia konpultsatua), deialdiaren I. eta II. Eranskinetan zerrendatutako **merezimenduak** baloratzeko.
2. **programazio didaktikoa** (txanda librea eta elbarritasunarengatik erreserba dutenek).
3. **unitate didaktikoa** (B2 ariketaren ordean Hezkuntza Administrazioaren txostena hautatu dutenek).

Programazio didaktikoa edota unitate didaktikoa entregatzen ez duten izangaiek aukeratze prozeduratik at geratuko dira.

Oharra: Haur Hezkuntzako espezialitatean, azken oposaketan aurkeztu zen berdina aurkeztu behar da oraingo honetan ere.

1. Dokumentazioa entregatzeko aurretiko zita eskatu beharko da (urretiko zita bakarria emango da izangai bakoitzarentzat):

- <http://www.irakasle.net>
- <http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net>

Entregatzeko tokia:

- Araba: Zuzenean, Ramiro de Meztu, 10- Vitoria-Gasteiz.
- Bizkaia: Zuzenean, Kale Nagusia, 85- Bilbo.
- Gipuzkoa: Zuzenean, Andia, 13- Donostia.

2. Programazio didaktikoak eta unitate didaktikoak Hezkuntzak duen helbide elektronikoan entregatu beharko dira:

- <http://www.irakasle.net>
- <http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net>

Fomatu elektroniko hauetako batean entregatu beharko dira:

- Microsoft Office 2007 edo aurrekoa
- Open Office 3.2 edo aurrekoa
- Fitxategiak Portable Document Formaten (PDFn).

Onartuak eta baztertuak

Eskabideak betetzeko epea amaitutakoan (Urtarrilaren 31) Langileriaren Kudeaketarako zuzendariak Ebazpen bat argitaratuko du, Euskal Autonomia Erkidegoko Maisu-maistren, Bigarren Hezkuntzako irakasleen, Hizkuntza Eskola Ofizialeko irakasleen eta Musika eta Arte Eszenikoetarako irakasleen kidegoetan sartzeko hautaketa-prozesuan eta Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako Irakasleen Kidegoko funtzionarioentzako espezialitate berriak hartzeko prozedurarako **onartutako eta kanpoan utzitako izangaiei behin-behineko zerrenda** onartzen duena.

Halaber, ebazpen horren bidez onartzen da **B2 ariketaren orde**z Hezkuntza Administrazioaren txosten bat, unitate didaktikoari buruzko ezagutzak baloratuko dituen, eskatu duten eta eskaera **onartu eta atzera bota zaien izangaiei behin-behineko zerrenda**.

Aipatutako zerrendak Lurralde Ordezkaritzetan azalduko dira, bai eta Sailaren interneteko helbideetan ere.

Izangaiek erreklamazioa aurkeztu ahal izango dute behin-behineko zerrenda hauen kontra, 10 laneguneko epean, aipatutako ebazpena argitara eman eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.